2014ko Eskoriatzako Inauteriak

Mozorro lehiaketako oinarriak

1.- Parte hartzeko modalitate bakarra: taldeka (4 lagun edo gehiago).

2.-Lehiaketan parte hartzeko **martxoaren 1ean, larunbata, eguerdiko 13:00etan** egingo den desfilean parte hartu beharko da.

3.-Desfilean parte hartzeko **Huheziko aparkalekuan** egon beharko da 12:30etarako.

4.- Lehiaketan parte hartzeko **izena aldez aurretik eman daiteke** e-postaz edo telefonoz, edo bestela, egunean bertan Huheziko aparkalekuan 12:30etatik aurrera.E-posta: kultura@eskoriatza.net Tel.: 943 71 46 88

5.- Koadrila bakoitzari zenbaki bat emango zaio, desfilerako ordena adierazteko.

6.- Saria emateko, epaimahaiak **honako hauek edukiko ditu kontuan**:

- erakutsitako umorea.
- sortzen duten giroa.
- originaltasuna.
- janzkera.
- eszenografia.
- mozorroak egiteko birziklatutako materialak erabiltzea.
-

7.- Epaimahaia Kultura azpibatzordeko hainbat kidek osatuko dute.

8.- Sariak ordaintzeko modua:
Saria ordainketa bakarrean burutuko da "Axtroki" izeneko herri monetan, beraz, saria ez da eurotan emango. Axtroki 1-ek euro 1 balio du. Saria 1, 5 edo 10 axtrokiko diru-paperetan ordainduko da, diru-paper bakoitzean adieraziko dena.
Billete horiek Eskoriatzako Merkaterien Elkarteko kide diren establezimenduetan aldatu ahal izango dira merkatari bakoitzak bere establezimenduan aldaketa hori egiteko ezarritako baldintzetan.
Axtroki hauek 2014ko abenduaren 31a arteko balioa izango dute.

9.- Sarien kopuruak

- **Helduak**
  - 300 axtroki-ko bi sari
  - 200 axtroki-ko bi sari
  - 100 axtroki-ko sari bat.
  - 100 axtroki-ko sari berezia.

- **16 urtetik beherakoentzako**
  - 3 sari: merendola bat, pertsona bakoitzeko 6€ (gehienez 100€).

10.- Arratsaldeko **19:00ak aldera plazan** bertan jakinaraziko da irabazleak nortzuk diren, eta sariak banatuko dira.

11.- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du. Sortu litezkeen zalantzei edo ezustekoei erantzutea antolatzaileen esku egongo da.